



- DEABRUAREN ABOKATUA -

“Cool izateko zer egin? Modaren arauak ezagutu, behin eta berriro hausteko”

Nora Izagirre | Modan dago

Ezen zaila baita, moda zuk sortzen baduzu,
modaz kanpo ibiltzea.

Aritz Galaraga

Argazkia: Dani Blanco

Barkatuko didazu trapu hauekin jantzita etorri izana...

Irribarre horrekin barkatuta zaude. Gainera, asko gustatzen zait zure alkandora koadroduna; aspaldikoa dirudi, baina zortea izan duzu, bueltan etorri da.

Etor nintekeen txukunago, forro polarrarekin eta mendiko galtzekin.

Kontua ez da zer eraman, nola eraman baizik. Nik motxila bizkarrean dudala pasatzen dut eguna, hara eta hona. Hori bai, takoi eta ezpain gorriekin.

Zenbat *personal shopper* beharko lirateke gurean?

Personal shopper-ak baino hobe terapeutak, indibidualtasuna lantzeko. Norberari ongi dagokionaz jabetu eta imajinazioarekin erakusteko.

Modistek, trapu pare bat josi eta listo, 100 euro. Glamour handiagorik!

Bai, lehenengo ferietan trapuak aukeratu, zer kolorekoak diren ere pentsatu, forma erabaki, patrioiak egin, josi eta glamourrez beteriko denda polit batean saltzen jarri... Mendiko galtzek ez al dute gehiago balio?

Zuek bizi zarete, zuek!

Desfileak, jende ospetsua, Paris, Londres, Bartzelona... a ze garaiak! Herri txiki batean bizi naiz eta bi seme-alaba txikirekin, eskerrak

Internetek asko laguntzen duen... Hala ere, beti saiatzen gara irtenalditxoak egiten.

Zer egin *cool* izateko?

Norberegan sinetsi eta jarrera izan. Modaren arauak ezagutu, behin eta berriro hausteko.

Hainbeste arropa eta arropa-ondo, eta biluztasuna zer?

Alainek hiru hilabete ditu eta egun osoa titia bistan pasatzea beste erremediorik ez dut!

Kritikariak idazle frustratuak badira, modistak zer dira, modelo izan ezin dutenak?

Inoiz ez dut neure burua modistatzat hartu, horretarako josten ongi jakin behar da eta tamalez nahiko traketsa naiz. Modelo frustratua baino, modista frustratua naiz beraz.

Zergatik behartzen dituzue modeloak hain argal egotera? Oihal gutxiago gastatzeko?

Krisi garaian aurrezteak beti ona da. Baina guk nahiago ditugu neska beteagoak, itxura onekoak. Gure modeloak ez dira profesionalak, neska errealak baizik, berezitasunen bat dutenak.

Paco Rabanne handiaren antzera, iragarpen bat milurteko berrirako?

Iragarpen handiak diseinatzaile handientzat utziko nituzke. Urrutira baino egunean egunekora begiratzen dut, pausoak pixkanaka eta seguru emanez. n